



KONTSEILUKO LEHENDAKARIA: Nekane Zeberio Ganzarain

KONTSEILUKIDEA: Inés Vadillo Alzola

KONTSEILUKIDE-IDAZKARIA: Daniel Martínez Monge

Gasteiz, bi mila eta hemeretzi ekainaren hamaika.

NAN: , egoitza, jakinarazpenetarako:
; helbide elektronikoa, jakinarazpenak eskueran
jartzeko: informazio publikoa eskuratzeko 2019ko urtarrilaren 29an
aurkeztu zuen eskaera ezestearen kontra aurkeztutako erreklamazioa aztertu du Gardentasunaren Foru
Kontseiluak.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Urtarrilaren 14an erreklamatzailerak honako eskaera hau aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean: *“Donostiako Udalean daukadan plazatik (A taldea, A1 azpitaldea - Administrazio eskala berezia, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikariak, zuzenbideko lizentziadunak) Arabako Foru Aldundira aldatzea, behin betiko atxikita edo, bestela, behin-behinean, lana, bizitza pertsonala eta familia bizitza bateratzeko”*.

Eskaerari erantzuna eman zitzaion martxoaren 11n, eta jakinarazpena egin zen 2019ko apirilaren 1ean.

Bigarrena.- 2019ko urtarrilaren 29an interesdunak honako dokumentu hauek bidaltzeko eskaera aurkeztu zion funtzio publikoaren arloko eskumena daukan sailari:

- Arabako Foru Aldundiaren lanpostuen zerrenda, egun horretan eguneratua.
- Administrazio horretan dauden A taldeko A1 azpitaldeko lanpostuak (titulazioa: zuzenbideko lizentziatura), lanpostu bakoitzaren izena adierazita eta zer saili atxikita dagoen zehaztuta.
- A taldeko A1 azpitaldeko (titulazioa: zuzenbideko lizentziatura) zerbitzugintzak edota aldi baterako eginkizun esleipenak (aldi baterako programak egiteko edo gehiegizko eginkizunengatik).

Eskaera idazkian dokumentazio zertarako behar zen adierazten zen: *“karrerako funtzionarioaren plaza lekuz aldatzeko eskaera, administrazio horri 2019/01/14an aurkeztua”*.

Hirugarrena.- Geroago, martxoaren 4an, erreklamazioa aurkeztu zion Gardentasunaren Foru Kontseiluari 2019ko urtarrilaren 29ko informazio publikoa eskuratzeko eskaeraren ustezko ezespeneren kontra.



Gainera, 2019ko martxoaren 20an aurreko erreklamazioa zabaltzeko idazkia aurkeztu zion Gardentasunaren Foru Kontseiluari, Giza Baliabideen Zerbitzuko buruaren 2019ko otsailaren 25eko idazkia, informazioa ematen zuena, barnean hartzeko, uste baitu berak eskatzen duena ez dela betetzen Foru Aldundiaren gardentasunaren atariko informazio publikoa eskuratuta. Gainera, Aldundiaren web orrian dagoen informazioa ez dago eguneratuta.

OINARRI JURIDIKOAK

1.- Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 35.5 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorriz, Gardentasunaren Foru Kontseiluak dauka eskumena Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakundeen ebazpenen aurka aurkezten diren erreklamazioak aztertzeko eta ebazteko.

2.- Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarenak, 20. artikuluko 1. eta 4. zenbakietan xedatzen duenarekin bat etorriz, otsailaren 29an urtarrilaren 29ko eskaeraren ustezko ezespena gertatu zen; beraz, Gardentasunaren Foru Kontseiluari martxoaren 4an aurkeztutako erreklamazioa epealdiaren barruan egin zen, 19/2013 Legeak 24.2 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

3.- Hasierako erreklamazioa 2019ko martxoaren 20an aurkeztu zitzaion Gardentasunaren Foru Kontseiluari Giza Baliabideen Zerbitzuko buruaren 2019ko otsailaren 25eko idazkiaren aurka (jakinarazpena martxoaren 16an); idazki hartan azaltzen zen eman daitekeen informazioa Arabako Foru Aldundiaren gardentasunaren ataria eskuratu daitekeela. Bada, erreklamazio hori zabaltzea dela eta, adierazi behar da ebazpena ez datorrela bat abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoarenak, 100. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenarekin, eta, beraz, Foru Kontseiluari ezin zaiola aurkeztu erreklamaziorik horren aurka.

4.- Auziaren funtsari dagokionez, urtarrilaren 29ko eskaeran informazio publikoa dokumentazio zertarako behar zen adierazten zen: “karrerako funtzionarioaren plaza lekuz aldatzeko eskaera, administrazio horri 2019/01/14an aurkeztua”.

Erreklamatzailerak hauxe eskatzen zuen: “*Donostiako Udalean daukadan plazatik (A taldea, A1 azpitaldea - Administrazio eskala berezia, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikariak, zuzenbideko lizentziadunak) Arabako Foru Aldundira aldatzea, behin betiko atxikita edo, bestela, behin-behinean, lana, bizitza pertsonala eta familia bizitza bateratzeko*”.

Funtzio publikoaren eta, zehatzago, lanpostuen horniduraren inguruko Eskaera hori dela eta, erreklamatzailerak jakin nahi zuen Arabako Foru Aldundian A taldeko A1 azpitaldeko zenbat lanpostu dauden (titulazioa: zuzenbideko lizentziatura), berak plaza baitauka Donostiako Udaleko A taldeko A1 azpitaldean (administrazio eskala berezia, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikariak, zuzenbideko lizentziadunak), eta, beraz, lanpostu horien horniduran parte har baitezake Foru Aldundiaren lanpostuen zerrendan ezartzen denarekin bat etorriz.

Hori dela eta, 19/2013 Legeak hauxe ezartzen du lehenengo xedapen gehigarriko 1. zenbakian: “*Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia*”.

Hala ere, Giza Baliabideen Zerbitzuko buruak martxoaren 11n behin betiko edo behin-behinean atxikitzeko eskaerari eman zion erantzunean adierazi zuen bezala, ez zegoen **abian** beste



administrazio batzuetako karrerako funtzionarioek parte hartzeko moduko lanpostuak hornitzeko prozedurarik.

Hori dela eta, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, hauxe ezartzen du 57. artikuluan:

- 1. Lege honen eremuan sartzen diren funtzionario publikoek lanpostuz aldatzeko duten eskubidea aitortzen da, lanpostu-zerrendetan horrela zehaztu dadin kasuetan eta aplikagarri diren funtzio publikoko legeetan xedatzen denari jarraiki.*
- 2. Aurreko idazatian aurrikusitako kasuetan, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek, lanpostuak betetzeko horietako edozeinek egin ditzaten **deietan** eskuhartu ahal izango dute.*

Urtarrilaren 14ko idazkian eskaeraren oinarri modura aipatzen diren EPOEko 81. eta 84. artikuluek denaz bezainbatean, kontuan eduki behar da azken xedapenetatik laugarrenean ezartzen dena: *“Nolanahi den ere, III. tituluko II. eta III. kapituluetan, 25.2 artikulua salbuespen dela, eta V. tituluko III. kapituluan ezarritakoa estatutua garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeak indarrean jartzen direnean hasiko da ondorioak izaten”*.

Beraz, ez dagoenez abian beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioek parte hartzeko moduko lanpostuak hornitzeko prozedurarik, urtarrilaren 29ko eskaerari ez zaio aplikatu behar lanpostuak hornitzeari buruzko araudia (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena), baizik eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa (19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onarena; 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarena).

5.- Informazioa eskuratzeko eskaera gardentasunaren arloan sartu ondoren honako hau aipatu behar da: abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onarenak, informazio publikoa eskuratzeari ezartzen duenaren arabera (batez ere 14. eta 15. ezartzen duena), erreklamatazaileak eskatzen duena ezin da ukatu, eta ezin zaio aplikatu eskubidea murrizteaz ezartzen dena.

Hain zuzen ere, lanpostuen zerrendei dagokienez, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren 2015eko ekainaren 24ko 7/2015 interpretazio irizpideak (BDAErena ere bada) ezartzen du ezen, 19/2013 Legeak 15.2 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, lanpostuen zerrendaren inguruko informazioa “antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak” dira, eta, beraz, eman egin behar da.

6.- Gainera, 1/2017 Foru Arauak hauxe ezartzen du 36.2 artikuluan: *“eskatzaileak adierazitako eraren eta formatuaren ordezkariak erabili ahal izango dira informazioa emateko, kasu hauetan: a) **Informazioa** lehendik argitaratuta dagoenean eta eskuratzeko erraza denean. Horrelakoetan, ebazpenean informazioa nola eskuratu adierazi ahal izango da, besterik gabe.”* Antzeko zerbitzuak ezartzen du 19/2013 Legeak 22.3 artikuluan.

Nolanahi ere, kontuan eduki behar da Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren 2015eko azaroaren 12ko 9/2015 interpretazio irizpideak dioena: *“**herritarrek informazioa eskuratzeko eskubidea ezin da mugatu publikotasun aktiboa aplikatzen zaien informazio edo datuetara. Arlo honetako betebeharrak Administrazioari dagozkio, eta ez dute mugatzen ez aldeztu aurretik ebazten herritarrek informazioa eskuratzeko eskubidea; aitzitik, eskubide horren zerbitzuan daude, herritarrei***



eskubide hori erabiltzen laguntzeko, behar dituzten datuak edo informazioak eskuratzeko bidea ahalik errazena izateko”.

Halaber, 19/2013 Legeak hona hau ezartzen du 5. artikuluan: “2.1 artikuluan aipatutako subjektuek aldizka argitaratuko dute jarduera publikoaren funtzionamenduaren eta kontrolaren inguruan egiten duten jardueraren gardentasuna bermatzeko beharrezkoa den informazio **eguneratua**”. Eta antzeko zerbait ezartzen du 1/2017 Foru Arauak 18.2 artikuluan: “Informazio publikoa egiazkoa, objektiboa eta **eguneratua** izan behar da”.

Hala ere, Gobernu Irekiaren Atarian dagoen lanpostuen zerrendan (<https://irekia.araba.eus/documents/625226/764801/1enero2019.pdf/a8285988-cbf1-dd6c-7630-a1e71acb1f3c>) (“LPZ – Lanpostuen zerrenda”) ez da datarik ageri, eta “Ez titularrrik ez okupatzailerik ez duten lanpostu hutsen zerrenda” (<https://irekia.araba.eus/documents/625226/723403/19ABRIL2017VACANTES2+%281%29.pdf/d6e76564-3344-4332-5a37-684c72412995>) deritzon datuak 2017/04/19an eguneratu ziren azkenekoz.

7.- Beste alde batetik, 19/2013 Legeak hauxe ezartzen du 18. artikuluan: “Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskabide hauek: c) Hedatzeko, **aldez aurretik, berriro prestatzea behar duten** informazioari buruzkoak”.

Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren 2015eko ekainaren 24ko 7/2015 interpretazio irizpideak (BDAErena ere bada) hauxe ezartzen du: “informazioa berriro prestatu behar izatea eskaera ez onartzeko arrazoia izatea dela eta, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak hainbat ebazpenetan azaldu du bere interpretazioa; hain zuzen ere, eskaera ez onartzeko aplikatu daiteke, baldin eta eskatzen den **informazioa**, eskaera jasotzen duen erakundearen jardun-eremukoa izanik: a) **Berariaz sortu behar bada** erantzuna emateko **hainbat informazio-iturri erabiliz**; edo b) **Erakundeak ez badauzka** eskatzen den informazioa biltzeko eta lantzeko behar diren **baliabide teknikoak**, eta ondorioz informazioa ematerik ez badago”.

Eta honako hau gaineratzen du: “**Onartzen bada informazioa berriro prestatzea dela datuak gehitzea edo txertatzea, edo gutxieneko tratamendua aplikatzea, informazioa eskuratzeko eskubidea datua edo dokumentazioa eskuratzeko eskubidea** izango da, eta hori ez da 12. artikuluan adierazten dena **“informazioa eskuratzeko eskubidea”** zehazten denean”.

Edo, bestela, ikus dezagun zer dioen Aragoiko Gardentasunaren Kontseiluak 2017ko uztailaren 27ko 15/2017 Ebazpenean: “**Informazioa biltzea ohiko tratamendu informatizatu baten bidez ez da hartuko** eskaera ez onartzeko arrazoitzat, **informazioa berriro prestatzea dela eta**”.

Hori dela eta, hara zer dioen Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko auzien hirugarren salak, 3. atala, 2017ko urriaren 16ko 1547/2017 Epaian (Rec. 75/2017): “Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 18. artikuluan aipatzen dituen **eskaerak “ez onartzeko arrazoiez”** ematen diren ebazpenetan, **eta batez ere** artikuluko horretako **1.c/ letran** ezartzen den arrazoiak (“hedatzeko, aldez aurretik, **berriro prestatzea** behar duten informazioari buruzko eskaerak”) ematen direnetan, **premisia modura erabili behar da 19/2013 Legean agertzen den informazioa eskuratzeko eskubidearen formulazio zabala**. Horrenbestez, guztiz zuzena da 6. Epaitegi Zentralak epaiaren hirugarren oinarri juridikoan adierazten duena: 19/2013 Legeak onartzen du herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea dutela eta eskubide publiko subjektiboa dela, honako hau ezartzen baitu: “Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan” (12. artikulua); Legearen zioen azalpenetan informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen formulazio zabala egiten da, adierazten baita pertsona guztiak dira eskubidearen titularrak, eta arrazoia azaldu gabe erabili daitekeela; eskubidea bakar-bakarrik mugatuko da informazioak berak horretara behartzen duenean –Espainiako Konstituzioak



xedatzen duenarekin bat etorri- edo babestutako beste interes batzuekin gatazka sortzen denean; azkenik, muga horiek aplikatzeko, kontuan edukiko dira kalteak (mugarekin babesten den interesarena) eta hedapenaren interes publikoa (hau da, ez gailentzea informazioaren hedapenaren interes publikoa), bai eta xedearen eta helburuaren araberrako proportzionaltasuna ere.

Informazioa eskuratzeko eskubidearen legezko onarpenaren eta erregulazioaren formulazio zabalak behartuta, ezinbestekoa da zorrotasunarekin, eta are murrizpenarekin ere, interpretatzea eskubide horren mugak, 19/2013 Legeak 14.1 artikuluan ezartzen dituenak, eta informazio-eskaerak ez onartzeko arrazoiak, 18.1 artikuluan aipatzen direnak.

Premisa horretatik abiatuta, dagoeneko aurreratu behar dugu aztertzen ari garen kasuan ez dela gertatzen abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 18.1.c/ artikuluan informazio-eskaerak ez onartzeko ezartzen den arrazoiak, hau da, eskaera izatea "hedatzeko, alde zurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoa".

Ondorioz, ez dirudi eskatzen den informazioa berriro prestatu beharrekoa denik, ez lanpostuen zerrendari buruzko informazioa, ez zerbitzugintzei edota aldi baterako eginkizun esleipenei buruzkoa.

Horregatik guztiatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, honako hau ebatzi du:

EBAZPENA

Lehenengoa. 2019ko urtarrilaren 29an informazio publikoa eskuratzeko aurkeztu zuen eskaeraren ustezko ezestearen kontra aurkeztutako erreklamazioa baiestea.

Bigarrena. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari eskatzea eman diezaiola eskatu duen informazioa interesdunari.

Nekane Zeberio Ganzarain
Mahaiburua

Inés Vadillo Alzola
Kontseilukidea

Daniel Martínez Monge
Kontseilukide-idazkaria